

## ITXAROPENA

Biotz-biotzez zeu maiztuzen,  
ene Aberija,  
beti beti zeurekin ohlozetu,  
Ama maizia,  
zeu poztua ikusteko itxaropenez  
gustiz betea  
Indi ontan igaroz dizona  
bizi nerea.

Zeure seme guziet biotzen  
jabe eginik  
arotzaren bustari gaiztotik  
gustiz azkatutik  
zeuri, Ama legez dagokizun  
goi-mallan jaririk  
zez-ote-zaitut nik ikusiko  
pozez heterik?

Bai Jaungoikua'gan nste osoa  
Beti ipinirik  
zeure seme zintzoen alegiñak  
gauf ikusirik  
ene Ama! egunen batian  
etsayak garaiturik  
gustiz pozerko egumak zureztat  
itxaro ditut nik.

Tene.

Deba.

## ABERIJAREN ALDEZ

I  
BATASUNA

Euzko-odola daukagu euzko-erki danetakuak. Euzkel-ixena daruagu bai bizkaitararak, bai gipuzkuafarak, bai arabak, nabaitar, laburditar ta zuberotararak. Gustijok doguz eskabide bafdiñak egiteko ta loftuteko geure abefijari dagokijon azkatasuna.

*Euzkadi* deritxogu abefijari euzkotar gustijon ama bera dalako Beraz, zabaldu biaz dogu euzko-ikasija, euzkotasuna beti aldezturik.

Lenengoz dogokigu euzkeltzaletasuna zabaltzia, politika danak alde batera itxita ta erdereaz bazteiturik. Auxe da geure areyorik amuraturubena.

Euzkeltzaletu biaz doguz geure anayak, sartu onen biotz-baruban Euzkera-maiztasuna.

Eriñ bat ilun eta il-zorijan dagola, azkatasuna nundik nora daukon eza-daki, erukafija da benetan. Eta inoren menbian ba-dago, geyago.

Auxe jazo yakon geure abefijari. Ilun egon len, ilunago geruago ta azkenez inoren efpe zofotzetan jausi zan. Baña zorijonez, befbizkundia ta ixakera bafija zabaldu eban Sabin andijak.

Egija da geure elderrdijan asko dagozala su ta gar, abefijaren azkatasuna ikusteko. Nire eritxiz beintzat, gauf eztagokigu ori Azkatasuna loftuta gauf, urian biaz galduko geunke.

Ori baño len, gauza asko egin biaz doguz. Geure ixakera

ta edestija (istorija) ezagun ta azertu geure burua benetan abertzalein. Euzkera sendotu biaz dogu, abertzaletasunaren almena, abefijareu biotza dalako.

Biotz-barik ezta ondo gorputza, ezin bizi. Euzkera-barik be eztago ondo euzko-erija, ilgo litxake.

Gura doguna loftuko dogu, abertzale onak ba-gara. Euzko-erija bixiko da paketsu, euzko-gauza gustijak ontzat aftuko dabez geure ondorenguak, geure illoheak ondo ja-hong dabe euren azkatasuna batasuna ba-danke, gustijak alkaf batuten ba-dira.

Barainka.

## "La Cervecera del Norte" -- Bilbao

Munich, Orija ta Argija gararduak

## Amabosteunoroko gora-bereak

*Euzkel-abestijak.*—Bai-guaz, bai-guaz aufera. ¡Nok esan am laster zabalduko zirala geure abesti ederak! Mendigo-xaliak asi ziran baferi-aranetan abestijok zabaltzen eta orain uri andijetan eta ez jeltzaliak bakarrik, geutarak ez-tiran euzkotarak be pozik entzuten dabez, Bilbao, Abando, Barakaldo, Sestao, ta azkenian Portugalete'n abeskixun politak egin dira.

Uri onetan, Miren-Jasokundia'reu egunian Bilbao, Abando, Barakaldo ta Sestao'ko mutiko-neskato abes-larijak batzau ziran, uda'ak defuta Uriko zeu edo plaza-on, eguberdijan uritarak adi-adi egozalarik euzko-abesti gozvak abestu ehezan. ¡Arek ziran txaltak! Au ez-eze eres-patz edo bandeak geure eresti bat edo batzuk jo ebazan.

Geure txaltak Portugalete'ko udalari, ta euzko-erijeta-kuak antzatu begije.

\* \* \*

*Abertzalea espezialian.*—Lengo egunian sartu zan espetxe edo kartzelan Elezkanotar Toma deustuar abertzalea. Uri atan ixan ziran auteskunde edo elezioetako zerozegaz salatu dabe.

Ezkadixan aitzu geure anai origaz, ezta bere sendi edo pamilijaz, Bilbao ta Deusto'ko Euzko-Gastedijeta" txindi batza egin da geure aizkidiaren sendija sorosi edo laguntzeko; al dogun neufijaz geuk be txindija emon daigun eta Bilbao-Abando'ko jeltzaliak on-egingo dabe abertzalian ikusti-juatiaz Igande ta egubenetako goxetan, amaikaeta-rik eguberdirafte juan lei.

\* \* \*

*Argituzeko.*—Lengo zenbakijan esan geban "Euzkeldun Batzoki" ko abertzaliak, batzoki onen urteufena ospatzeko Sukafietara juan zirala. auxe Sabin geure irakasle zana ta danaren alde otai eginik. Ederito dago au.

Baño izpar a eginda gero entzun dogu Sabin'en illobi-aurlan abertzale batek itz-egin ehaba, ta ez biaz zan lez. Zinez, eztagu ziaz zer esan eban, baña entzun dogun lez ixan-ba-da. ezin dogu ori onetsi. Pozik txalo joko geuskio Sabin-opazko jai gusti ori bana tamalez ezin dautsozu ilde-giko itxeixunari egin, entzun doguna egija ba-da.

\* \* \*

*Plaza barija'n.*—Zei onetan irakusketa polita egin da lengo egunetan. Euzkadi'ko lugin, eta saltzaliak erdu dira, euren gauzak irakasten: madari, sagar, pipar, aza ta beste barazkiak; zigazno (arbesto), lora, landara ta beste barkijak;